AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5998

273/2011 EBAZPENA, azaroaren 14koa, Bilboko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, Bizkaiko Osasun-barrutiko Bilboko Eskualdeko Santutxu-El Karmeloko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak M.ª Carmen González Temprano andreari esleitzeko dena.

Bilboko Osasun Eskualdeko gerentearen uztailaren 15eko 174/2011 Ebazpenaren bidez, Santutxu-El Karmeloko Lehen Mailako Atentzioko unitateburua izendatzeko deialdi publikoa onartu zen.

Deialdiaren 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, epaimahaiak destinoak esleitzeko proposamena bidali dio Eskualdeko zuzendari kudeatzaileari, gerenteak ebazpen lotesle baten bidez onar dezan.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilboko Eskualdeko Santutxu-El Karmeloko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak M.ª Carmen González Temprano andreari esleitzea.

Bigarrena.– M.ª Carmen González Temprano andreak gestio- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Osasun Eskualdeko gerentearen ardurapean. Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak betetzen diharduen bitartean, bai eta funtzio horiek amaitzen direnean ere, bere kategorian dagokion plazaren titulartasuna atxikiko du, eta horren oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak edo ordainsariak finkatzea, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal izango da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, M.ª Carmen González Temprano andreak ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean daude ezarrita.

Bosgarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian xedatutakoari jarraiki, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bilbao, 2011ko azaroaren 14a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.